



Ukan saria AEDrentzat

2008KO UKAN SARIA Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkarteak jaso du Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Horretarako arrazoiak ondokoak: euskara elkartearen mugimenduaren aitzindari izateagatik, berritzaile eta bide-erakusle izanagatik eta euskarak, euskararen munduak eta euskalgintzak desiragarri ez ezik nahitaezkoa duten zabaltasunaren aldeko jarrera hasiera beretik erakutsi izanagatik. Hiru merezimenduzko sari ere banatu zituzten. Bata

Eroski kooperatiba elkarteari, *Consumer Eroski* kontsumitzaileentzako aldizkariaren euskarazko bertsioagatik; Ikeari, urteko katalogoaren euskarazko bertsioa lehen aldiz egin izanagatik eta Microsofti, Windows Vista sistema eragilea eta Office 2007 ofimatikako paketea euskaraz plazaratu izanagatik.

Nafar hedabideak kexu

NAFARROAKO GOBERNUA jira-biraka ibili da euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak direla-eta. Azkenean 310.000 eurotik 240.000ra jaitsi du laguntza. Ondoko hedabideek adierazi dute Gobernuarekin negoziatzeko prest direla, laguntzak ez direlako bizirauteko nahikoa: *Xuka, Guaixe, Nabarrerria, Ttipi-Ttapa, Kotarro, Karrika, Xapo, Marmari, Mailope, Zorroka* eta *Pulunpe* aldizkariak; Xorroxin, Belexe, Karrape eta Esan-erran irratiak; Ttipi-Ttapa eta Xaloe telebistek eta Topaguneak.

TALAIAN

Langabezia eta enpresariak

Langabeziak, eraikuntzaz gain, industria eta zerbitzuak astindu ditu Hego Euskal Herrian. Aurreikuspenen arabera, hazten segiko du. Azaroan, Hego Euskal Herrian, 9.683 langabe izan dira eta orain guztira 124.906 langabe daude, biztanleria aktiboaren %9a. Sektore guztiei eta lau probintzietan eragin die. Aldi baterako kontratuak dituztenak ari dira nozitzen langabezia, gazteak eta emakumeak. Finantza krisiak eragin du hau. Bankak, hipoteka toxikoen bidez, zakua etekin galantez bete nahi izan du, zuloa egin zaion arte. Kredituak emateari utzi dio, lehenbizi eraikuntza geldituz eta gero industria eta zerbitzuak. Langabetuak gero eta gehiago direnez, kontsumoak behera egin du eta ondorioz industria eta zerbitzuak izoztu egin dira.

Patronalak, garai onetan etekinak banatu ez baditu ere, langileei eta sindikatuei elkarren babesean aurrera egitea eskatzen die orain. Horrek aldarrikapenak alboratzea esan nahi du, soldatak izoztea eta lan erregulazioak onartzea. Izango dira enpresa txiki eta ertaineko enpresari ondarduak, langileekin etekinak banatu dituztenak. Gutxienekoa izango diren horiek eskubidea dute bat egin eta negoziazio koiunturalak egiteko. Eskubiderik ez dute ordea, enpresa ertain, handi eta multinazionalak, etekinak poltsikoan gorde eta ez zituztelako elkarbanatu langileekin. Horiek ordain dezatela krisia, ez langileek. Eta Administrazioak begi zorrotzez kontrola dezala enplegu erregulazioko espediente bakoitza.

Juan Mari Arregi

Hausnartu saria Fermin Lazkanorentzat

SOZIOLINGUISTIKA Klusterrak banatu ditu Hausnartu Soziolinguistika sariak. Lehen saria hutsik utzi dute eta bigarrena Fermin Lazkanoren *Erabilera ala ezagutzaren sustatzeko politikak? Erabilera neurketak oinarri, politikak erabakitzeke metodo bat* izeneko lanak jaso du. Hirugarren saria Jone M. Hernándezek jaso du, laugarrena Eunate Irazabalek eta bosgarrena Castillo Suarezek.

BAHEA

Unai Larreategi EHEko kideak

Garau esanak: "Abenduaren 3an badirudi arduradun politiko guztiak euskararen alde guztia egiteko prest daudela. Baina zein izaten da abenduaren 4ko errealitatea? Egin kasu, abenduaren 2ko bera, gaztelaniaz funtzionatzen duten instituzioena. Hogeita sei urte dira EAEn euskara ofiziala dela, eta oraindik Bilboko udalbatzak gaztelania hutsean egiten dira, Jaurlaritzan administrazioek orokorrean gaztelaniaz funtzionatzen dute eta eskolak euskalduntzeko behar diren aldaketak egitearen aurka daude".

Patxi Baztarrika HPSko buruak

Diario de Noticiasen esanak:

"Ulergaitza da ele bakarrean bizi den gizartearen zatian ageri ohi den euskal munduarekiko gorria (...) Eleaniztasunaren aurkako joerak urrundu egiten gaituzte etorkizuneko bidetik (...) Azken batean, praktikan hizkuntza sendoenaren alde kudeaturiko diglosia batetik lebitasun orekaturantz daraman zubian barrena buruargitasunak gidatu eta bridaturiko ausardia intelektualak eramango du euskal herritarrok osatzen dugun elkarre bakarra. Denok edo inor ez. Amoz eta jakitez".

Hilketaren arbuioa, elkarrizketaren aldarria

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

INAZIO URIA-REN hilketarekin ETAk berriz erakutsi du bere apustu armatua ahalik eta modu gogorenean eustekotan dagoela. Batek daki, molde horretan beste negoziazio prozesu bat behartuko duen ala ez. Ezetz esaten da, baina Aljer, Aznarren MLNV hura, Loiola... ez dira amestutakoak.

ETAren kalterik zuzen eta handiena bere biktimek eta haren ingurukoek jasotzen dute, inolako zalantza barik. Konponbide eta itzulera gabeko ondorio itzelak. Baina kalteen balorazio politikoa eginez gero, gaur gaurkoz, eragindua berarengandik gertu dagoen ezker abertzalea da. ETA ez da Estatuaren ilegalizazio politiken erantzule zuzena, diskurtso politikoki zuzenak iradokitzen duen bezala; ezin da argudio horrekin Estatuaren erantzukizun errepresibo eta antidemokratikoa zuritu.

Baina bere jardun armatuak egoera horiek sortzen ditu. Estatuak da ETAren aurkako estrategia aldatu zuena, zuzenki bera kolpatzetik, ENAMeko mugimendu zibila ere kolpatzera iraganez –eta askotan, ENAMetik kanpoko pertsona eta egitu-



rak ere errepresio sare berean sartuz—. Zuzenbide estatuaren izaeraren guztiz aurkakoa da “dena da ETA” errepresio molde hori, baina Estatuak samur eraman dezake aurrera, nagusiki bi arrazoiengatik: bat, Espainiako populazioa horretarako xaxatzen delako eta hori Madriren politikoki errentagarria delako; eta bi, eta garrantzitsuena, ETAren jarduerarekiko euskal gizartearen dagoen arbuizate sakon eta indartsuak kontrako erreakzio sendorik oztopatzen duelako.

ETAk borroka armatuarekin jarraitzearen aldekoentzat, aldiz, badirudi eraginkorragoa dela borroka armatuak eman dezakeena, mugimendu politiko indartsuak lor dezakeena baino. Pentsamolde

zaharra da hori ezker abertzaleko zenbait gunetan, eta askotan arrakastatsua izan zaio, batez ere horrek sostengu –edo ulergarritasun– zibil indartsua izan duelako atzean. Besteak beste, horregatik geldiarazi zen Lemoizko zentral nuklearra eta horregatik behartu zen Leitza-rango autobaien negoziazioa.

Baina horiek duela 30 eta 20 urte gertatu ziren. Denboraren higatzea eta euskal gizartearen izandako aldaketa guztiak ikusi nahi ez dituenak, errealitatearen interpretazio arazo larriak ditu.

Bide itsua da estrategia horren etorkizuna, ez ezker abertzalearentzat bakarrik, baita euskal gizartearentzat ere. Horrexegatik, halako une gogorretan, hilketari berriarekiko arbuio argia erakustez gain, ezinbestekoa da elkarrizketa eta negoziazioaren aldarrikapen sendoa egitea. Ajouria Eneko Itunak porrot egin zuen; hortik ez da irtenbide txukunik gauzatu. Duela astebete ETAk Loiolan hil du Uria; duela 24 hilabete Loiolan ari ziren hizketan eta lorpen handiak erdietsi ziren. Hala badirudi ere, hori ez zen iragan mendean izan.



gure!
artean
euskaraz

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia